

Liburuak bahituta

Kritika Kolonbian bahituta

Eleberria. Asier Huegun eta Gari Udabe. Txalaparta, 2012ko iraila.

2003ko irailean izan zen, ia hamar urte pa-seak dira, baina pentsatzen jarri eta segituan jabetuko zarete hiru hilabete haietan jazotakoaz. Asier Huegun zuen izena, eta, goizetik gauera, ezagun egin zen egunkarietan Kolonbian talde armaturen batek bahitu zuelako, beste zazpi turistekin batera. *Asier Huegun donostiarrak da Kolonbian bahitu dutenetako bat* zioen Berriak. Egun hartatik, egunkariaren bidez jarraitu genituen bahiketaren nondik norakoak, 74 egunen ondoren askatu zuten arte. Liberratu eta hegazkinean bueltan zetorrela, Jakes Goikoetxeak, Berriako kazetari oriotarrak, egindako elkarrizketaren bidez jaso genituen bere lehenengo hitzak, eta etxeratu eta gero egindako prentsa aurrekoan bigarrenak, eta bakean laga ziezaiotela eskatu eta gero, azkenak.

Bada, urte mordoak honetan liburuak ontzen aritu dira Asier bera eta Gari Udabe kazetari usurbildarra, Asierrek bizi izan zuena ahalik eta egokiaren kontatzeko. Zer sentimendu izan zituen bahitu zutenean? Zein izan ziren beren ibilerak? Zer harreman izan zuten bahitzaileekin? Eta beste turistekin? Zein izan ziren kezka nagusienak?

KOLONBIAN BAHITUTA

74 egun
ELNren esku



Asier Huegun · Gari Udabe

ELN-k gatibu eduki zuen Asier Huegun 2003an. TXALAPARTA

Esan beharra dago, galdera horien guztien eta beste batzuen erantzunak liburu honetan aurkitzen direla, modu kronologiko eta xehe batean. Egunez eguneko kronikatxo bat egiten du Asierrek lehenengo pertsonan, eta hainbat egunkariaren titularrak tartekatzen dira guk, egun horiek, nola bizi genituen jabetzeko. Era argigarri batean asmatu

dute horretan, baita tonuan eta kapituluaren tamainan ere. Nobela bat ez izan arren, eta amaiera jakina duen arren, ez dakizue nola kateatzen duen liburu honek, ia-ia liburuak bahituta zauzkala sentitze-raino!